

Duela 30 urte baino gehiago Porrontxo jaiak sortu zituzten kuadrilla horietako kideak dagoeneko beteranoak bihurtu dira, eta bereziki eurentzako jarduera batzuk antolatu dituzte aurten; gazteek ere bultzada eman dute.

Adin guztietarako egokituak

Estitxu Zabala

Auzotarren ekimenez jaio ziren Egiako Porrontxo jaiak duela 30 urte baino gehiago. Urteetan izandako arazoei eta beherdiei aurre eginez, tinko mantentzen dira gaur egun ere. «Duela 32 urte inguru hasi ginen lanean. Auzoan lau jai zeuden garai bate-

an, eta bakarrak geratzen ziren, Baztangoak, baina horiek ere desagertzeko zorian zeuden. Orduan, elkartea sortu zen, dinamikan eta kulturaren sartzeko eta *por narices* jaiak izango zirela erabaki genuen, eta hortik, Porrontxoak», gogoratu du Joxepo Kortadik. Orduetik, ordea, urte asko igaro dira, eta jaiak sortu zituzten horiek partaidetzatik urruntzen ari ziren.

Horregatik, aurtengo jaietarako, beterano figura sortu dute, eta lehen aldiz bereziki eurentzako jarduerak antolatu dituzte. Belau-naldi bakoitzeko kide batzuekin bildu da IRUTXULOKO HITZA, jaiak nola bizi dituzten jakiteko: Joxepo Kortadi eta Angel Aranjuelo beteranoak, Amalur Alvarez gaztea, eta Josean Abecia eta Urtzi Aizpuru helduak.

«Hasieran, Donosti Gainek Koruko Amaren jaiak antolatzen ziren, baina desagertu egin ziren», oroitu du Aranjuelok. Azken batean, Porrontxoei hasiera ematea erraza izan zela gogorarazi du Kortadik. «Lehen ez genuen esku-ko telefonorik eta denak kalean topatzen ginen. Poteoan genbiltzala hitz egiten genuen eta pixkanaka geroz eta jende gehiago

batzen joan zen», azaldu du Kortadik. Iraileko hirugaren asteburuan ospatzeak ere badu bere azalpena. «Iraileko bi asteburuetan estropadak izan dira beti, eta lehen arazoak izaten ziren jaietako azpiegiturak lortzeko», azaldu du Kortadik.

Ongi gogoan dituzte beteranoek lehenengo Porrontxoak. «Lehenengo bi Porrontxoak kuadri-



Amalur Alvarez, Angel Aranjuelo, Josean Abecia, Joxepo Kortadi eta Urtzi Aizpuru, Porrontxoetako hiru belaunaldien erakusle. LIDE FERREIRA



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Yalde Erretegia

Bi lagunentzako bazkaria

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 21



Oialume bidea, 34.
Astigarraga
943-33 05 30

2 Donostiako Aquariuma

Bi lagunentzako bina sarrera

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 22



Carlos Blasco de Imaza plaza, 1. Donostia
943-44 00 99
www.aquariumss.com

Parte hartzeko delitu: 902-82 02 40 edo irutxulo.hitza.info helbidean ZOZKETAK atalean. Parte hartzeko azken eguna irailaren 24a. Saridunen izenak irailaren 27an argitaratuko ditugu. Irutxuloko Hitzaren **sustatzaileek** eta Donostiako Berriaren **harpidedunek** ere parte har dezakete zozketa honetan. Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu.

harpidedunak
TXOKOA hitza info

llarik gabekoak izan ziren, eta bi egunekoak bakarrik. Bigarrenak, ostiraletik igandera, baina kuadrillarik gabe ere. Hirugarren urtean zortzi kuadrilla bildu ginen. Handik aurrera, ostegunetik igandera izan ziren jaiak, eta zortzi kuadrilletatik 16 izatera pasa ginen, gero 24, eta 40tik gora elkartu arte. Kuadrilla gehien elkartu ginen urtean 1.003 lagun egon ginen afaltzen», azaldu du Kortadik. Izan ere, Kortadiren hitzetan, lehengo kuadrillak askoz zabalagoak ziren. Ondoren, jaiak behar bada izan zuten arren, berriro ere jende gaztearekin goranzko bidea egiten ari direla diote, eta pozik daude.

Haur, gazte, heldu eta beterano

Esan bezala, lehen aldiz beterano figura sortu dute Porrontxo jaietan. «Betaranoak dira bai kuadrillarik bai adinagatik, batzuk oso gazteak zirela sartu baitziren hasierako kuadrilletan. Gazteek lekukoa hartzea nahi genuen, baina hainbat arrazoiengatik, blusa jarri eta ezer gutxiago egin dute. Beste bultzada bat eman dugu eta hamar kuadrillatan ehun lagun inguru gaude», dio

Kortadik. Hala, aurtengo egitarauan, hiru kontu antolatu dituzte eurentzako bereziki; atzo kuadrillen jaitziera egitekoak ziren, gaur poteoa, afaria eta guatekea, eta bihar, euren neurria egindako jolasak. «Parre egiteko eta elkartzeko aitzakia izango da», gehitu du Aranjuelok.

Beteranoekin batera, gazteak ere jaietara bultzada propioa ematen ari dira. «Ostirala izaten da Gazte Eguna, eta egitarau berezia antolatzen dugu. Batez ere, egun dagoen Gazte Asanbladak iaz hartu zuen indarra, eta aurten, jarraipena eman nahi diogu. Egitarauaz gain, bai Gazte Asanbladaren aldetik bai Ernairen aldetik txosnetan lanean aritzen dira», argitu du Amalur Alvarezek. Hala, bazkaria eta jolasak egingo dituzte, besteak beste. Bestetik, gogoratu du Alvarezek, duela bi urtetatik beste auzoetako kuadrillei ongi etorria egiten dietela. «Antiguako eta Parte Zaharreko gazteak etorriko dira iaz bezala, eta zerbait berezia prestatzen ari gara», gehitu du Alvarezek. Egia-ko gazte mugimendua beharaldian zegoela aitortu du Alvarezek, baina, iaz berriro ere goranz-

ko bidea hartu zuela. «Duela pare bat urte Gazte Asanblada birsortu zen belaunaldi berriekin, eta iaz bultzada eman genien Porrontxoei, eta aurten oraindik ere gogotsuago ari gara. Gainera,



Beste bultzada bat eman dugu eta hamar kuadrillatan ehun lagun inguru gaude»

JOXEPO KORTADI
Beteranoa

«Ostirala izaten da Gazte Eguna, eta egitarau berezia antolatzen dugu»

AMAIUR ALVAREZ
Gaztea

«Azpiegitura zabala da, baina egitaraua eta jaien izaera nahiko sinplea da»

URTZI AIZPURU
Heldua

Ernai Gazte Antolakundea auzoan bertan ere sortu denez, aldaketa batzuk ekarri ditu», ziurtatu du Alvarezek.

Egitarauko gainontzeko kontu guztiak helduen lana izaten da, eurek baitaramate jaien hari orokorra. «Duela hiru urte bultzada berezia eman zitzaion kuadrillen igoerari, batez ere, mozorrotzeko ohitura berreskuratu zelako, eta aurrerantzean maila hori mantentzea da helburua», aipatu du Josean Abeciak. Azken finean, 400 lagun inguru bildu daitezke Porrontxoetako lehen eguneko igoera horretan. «Igoera bizitzeko modu asko daude, haurrak lehenengo ura eskatzen egoten dira, mozorroak landu dituzten kuadrillak egoten dira, ikustera ere jende asko hurbiltzen da, eta nerabe asko hirina eta arrautzekin zikintzen ibiltzen dira, eta hori gutxitzea nahi dugu», aipatu du Urtzi Aizpuruk.

Gainera, azpimarratu nahi izan dute, haurrentzako jarduerari arreta berezia jartzen dietela, eta jaietan garrantzia berezia izaten dutela. «Auzoko ikastola publikoak, Aitor ikastolak, jai eguna hartzen du ostiralean, Porrontxoak garrantzitsuak direlako auzoan, eta Haurren Eguna ospatzen dugu. Goiz eta arratsal-

dez jarduerak izaten dituzte», azaldu du Aizpuruk.

Porrontxoetako filosofia

«Jende guztia animatu nahi dugu Porrontxoetan parte hartzea. Azken batean, Porrontxoetako helburua da egitarau guztiok eta etortzen direnek ongi pasatzea. Besterik gabe, azpiegitura zabala da, baina egitaraua eta jaien izaera nahiko sinplea da. Ez dugu sekulako kontzerturik antolatzen, etxeokoin jokatzeko dugu», azaldu du Aizpuruk. «Partehartzea bultzatu eta jaien muina egiatarrak izatea nahi dugu», gehitu du Abeciak.

Horretaz gain, Porrontxoetako filosofiari lotuta, ez dute izaten ez barrakarrik ez kale saltzaileen posturik ere.

●ezabala@hitza.info

↓ Iragarki laburra

■ **Pisukide bila.** Pisua konpartitzeko pertsona euskaldun eta langile baten bila nabil. Donostian. Interesa dutenek 688.816.767 telefonora deitu.

TETUAN TABERNA
BAZKARIAK ETA AFARIAK
Karmengo Ama, 32 B - EGIA Tel.: 943 279 796

BELFAST
Irish Tavern
Itatz kalea, 9 • Tel.: 943 42 01 12 • Donostia

AITOR Ikastola
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA
Ondo pasa Porrontxotani!
Konkurrenea, 7 - Egia - Donostia
Tel.: 943 282132 - Faxa: 943 275627
012358aa@hezkuntza.net

MARCOS
okindegia
Benetako antzinako ogia
Ubarburu pasealekua, 113 • 27. Industrialdea • ASTIGARRAGA
Tel.: 943 45 09 66 - Faxa: 943 11 67 28

Egin HITZAREN HARPIDEDUN
irailaren 1etik urriaren 31ra arte,
ETA JASO:

OLASAGASTI
kontserba produktu sorta
www.conservasolasagasti.com

Harpidedun egiten diren guztien artean
SEGORE ETXEBERRI
nekazaturismoan,
bi lagunentzako
asteburu baterako egonaldia*
ZOZKATUKO DUGU
*Ostiral gauetik, igande goizera PENTSIO OSOAN.

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

www.segore.com

hitza info